Lan honen helburua, **Zein garai historikora joan nahiko zenuke?** galderari erantzutea da: Euskal Herriko historiako garai ezberdinak aztertu ondoren iraganera baino etorkizunera bidaiatzeko gogoa piztu zait. Honen zergatia euskaldunok Historian zehar ia beti edo hobeki esanda beti banatuta egon garela da. Bitan, hirutan, lautan, beti zatituta. Zazpiak bat amets egin izan da maiz, baina oraindik ere muga administratibo ezberdinek gure nazioa banatzen jarraitzen dute. Euskaldunon banaketa (askotan bitasuna) aztertuko dut ondorengo lanean, Historian zehar bidaia kronologiko bat eginez. Goazen ba!

HISTORIAURREA

Euskal Herriko aztarnategi arkeologikoek erakusten dute gure lurraldean Homo neanderthalensis eta geroago Homo sapiens bizi izan zirela.

Bi espezie horien arteko harremana konplexua izan zen, lehia egon zen, baina baita nahasketa genetikoa ere [1]. Horrek erakusten du aniztasuna eta taldeen arteko tentsioa gizateriaren historian hasieratik egon direla. Ez zen soilik Euskal Herriko fenomenoa izan, gure lurraldean ez ezik Europa deritzogun lurraldean zehar ere eman zen gatazka hau. Baliabideen kontrola eta biziraupena izan ziren lehen gatazken arrazoi nagusiak.

ERDI AROA

Erdi Aroan, Oinaztarren eta Ganboatarren arteko gatazkek Gipuzkoa eta Bizkaiako lurraldeak astindu zituzten. Gaztelak menperatutako lurraldeetan eman ziren leinu gerrak, nobleziaren arteko botere-lehia izan ziren, baina herritar xeheek ere ondorio latzak pairatu zituzten. Honen adibide garbia 1448an Arrasateren erreketa izan zen. Oñatiarrek (Ganboa) su eman zioten Arrasateri. Gertaera hori gogoratzeko kopla zaharrak hala diote[2]

Erre dezagun Mondragoe
Lasterreon sar gaiteza[n]
Kantoeko sar[t]zaikeran
Aen bizarrak ikara zirean
Armakaz ezin egien legez ezer

Leinu borrokek jarraitu zuten hainbat urtez. 1490rako amaituta ziren bandoen gerrak. Borroka hauen atzean kausa anitz egon zirela dirudi eta historialariak ez dira guztiz ados jartzen gatazkaren arrazoiak zein izan ziren azaltzerakoan. Argi dagoena da Europa osoan izan zirela antzeko gatazkak eta Nafarroan ere Agramontar eta Beaumontarren artean ere liskar ugari egon zirela.